



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

«Ekologiko» hitzak saldu egiten du

Informazioaren aro honetan hitz-jokoen, esanahi desitxuratuen eta berben erabilpen interesatuen zurrubiloan sartu gaituzte. Horrelako zerbait gertatzen ari da “ekologiko” hitzarekin: hainbeste erabiltzen da (testuinguru ezegokiena izanda ere), non erabat desitxuratzeaz dagoen. Hori gehitu beharko genioke informazio-iturriak egokiak direla sinetsita, beraiek eskaintzen digutena kontsumitzen dugula; askotan, benetan zer eskuratzen ari garen jakin gabe. Informazioaren aroan, izenek izanaz dutena ahaztarazi nahi digute.

Egun, hein txiki edo handiagoan, guztiok izan dugu nekazaritza ekologikoaren berri, baina, elikagai ekologikoez ari garenean, ba al dakigu benetan zer diren? Ekoizpen ekologikotik elikagai bereziak lortzen direla entzuna dugu: ingurumenarekiko errespetuz ekoiztiak, produktu kimikorik gabe, eta abar. Bada, elikagai ekologikoak ezberdinak dira, baina ez bakarrik agrotokikoez, salneurriaz edota ingurumenaz ari garenean.

Nekazaritza ekologikoa, biologikoa edo organikoa are gehiago da: lurraren emankortasuna eta ekosistemen eta gizakien osasuna mantendu eta indartzen duen elikagaiak ekoizteko erudia da. Prozesu ekologikoetan, biodibertsitatean eta lekuan lekuko zikloetan oinarritzen da, kutsadura eragingo luketen kanpo baliabideak baztertuz. Horregatik, nekazaritza ekologikoaren teknikak muzin egiten die ongari kimiko-ek, pestizidei, genetikoki eraldaturiko organismo-ek eta, oro har, naturalak ez diren bestelako gai sintetiko-ek.

Ekologikoen oihartzuna zabaltzen diren arren, eredu ekologikoaren balioa eta segurtasuna zalantzan jartzen duten ahotsak ozenagoak dira orain. Bada, segurtasunari dagokionez, munduan ez da zientifiko

errespetagarririk ekologikoak ezbaian jartzen dituen. Aitzitik, merkatuan topa daitezkeen beste elikagaiek ez bezala, ekologikoez berme sistema bikoitza dute: alde batetik, osasun-agintaritzak jaki GUZTIEI ezartzen diena, seguruak direla bermatzeko; eta bestetik, ekoizpen-prozesuak benetako ezaugarri ekologikoak dituela bermatzen duena (Autonomi Erkidegoan ENEEK eta Nafarroan NNEEK). Beraz, elikagai ekologikoez osasun-baldintza berberak pasatzen dituzte. Are gehiago, 2004 eta 2009 artean 30 unibertsitatek eta ikerkuntza-institutuek egindako Quality Low Input Food (QLIF) proiektuak ondorio esanguratsuak kaleratu zituen: elikagai ekologikoak seguruak dira. Horrez gain, ikerketa horrek, elikagaiei buruz Europar egindako zabalak, ikusi du kutsadura mikrobiologikoen arriskua txikiagoa dela ekologikoetan.

Esan bezala, eredu ekologikoan ez dira input sintetikoak onartzen, eta hori bada beste ezberdintasun bat. Izan ere, Elikagaien Segurtasunerako Europar Agintea (EFSA) bere azken txostenean adierazi du analizatutako elikagai konbentzionalen ia hamarretik lautuan pestiziden hondar neurgarriak topatu dituztela. Ehun kasutik batek, gainera, kontsumorako ezarritako gehieneko mugak gainditzen ditu. Oraindik erantzuteke dagoen galdera da pestizida hondar horiek benetan seguruak ote diren. Nekazaritza ekologikoan plagizida, fungizida edota ongari efektua duten input edo gaien erabilpena ere ohikoa izan arren, betiere naturan aurkitu behar dira (mineralak, sendabelarrak, simaurra...), jatorriak ezin du inolaz ere sintetikoak edota prozesu industrialetatik eratorria izan.

Prebentzioa da nekazaritza ekologikoaren neurririk eraginkorrena. Hots, gaixotasunari aurre egitea baino, gaixotasuna ez



Elikagai ekologikoak erroitik, hazitik dira ekologikoak. HARITZ MAYORA

agertzeko baldintzak ematea. Ondo dakite hori baserriar ekologikoez. Horregatik, azindari larre eder eta zabalak eskaintzen dizkiote, abereak “pozik” egon daitezzen; barretan labore mota ezberdin asko lantzen dituzte, elkarri lagun diezaioten.

Eredu ekologikoa eta konbentzionala ekoizpen-arloan konparatzeko asmoz, Ameriketako Estatu Batuetako Rodale Institutuak zereal espezie ezberdinekin ikerketa lanak egin ditu azken 30 urteotan. 2011ko neguan, ondorioak kaleratu zituzten. Lehenik eta behin, lurraren emankortasunari dagokionez, nekazaritza ekologikoak emankortasuna areagotzen duen bitartean, konbentzionalak antzutu egiten du. Bigarrenik, hektareako lortzen den ekoizpenari begira, aldiz, berdintsua da. Urtea lehorra denean, ordea, gauza aldatu egiten da: lehortearekin, eredu ekologikoak gehiago ematen du, hektarea bakoitzeko. Hirugarrenik, ekoizpenean erabiltzen den energiaren ikuspegitik, ekologikoak %45 energia gutxiago be-

har du, eta gainera, eraginkorragoa da. Azkenik, berotegi efektua dela eta, ekologikoak %40 gas gutxiago isurtzen du. Hori guztia kontuan izanik, argi dago “ekologiko” hitzak saltzen duela. Horregatik, egun, guztiok izan nahi dute lehiakidea baino “ekologiko-agoak”. Baina, ez ahaztu elikagai ekologikoez erroitik, hazitik direla ekologikoak; baldintza batzuk betetzen dituztela, beste ekoizpen ereduak bete ezin dituztenak; nekazaritza ekologikoak betiko ohiturak, berrikuntza eta zientzia uztertzen dituela; guztiok partekatzen dugun ingurumena zaintzen duela; bidezko harremanak bultzatzen dituela; bizi-kalitatea zentzurik zabalean hobetzeko lan egiten duela. Beraz, jan ditzagun bertoko elikagai ekologikoak, izena izana gal ez dezan.

Ekokontsumo Federazioa, Kontsumo Ekologiko eta Arduratsuen Euskal Federazioa